



2011rako Udal Aurrekontuak atzera botatzea eskatu dute ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek

Osoko zuzenketa eta 116 milioi euro zenbatekoa duten 53 erreklamazio partzial aurkeztu dituzte

Ostirala 17rako mobilizazio bat deitu dute Aurrekontu partehartzaileak eta justuagoak aldarrikatzeko

Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdien Bilboko Udal taldeek 2011rako Bilboko Udal Aurrekontua atzera botatzea eskatu dute. Erreklamazioak aurkezteko epea atzo amaitu zen eta aurrekontuak elkarrekin aztertu dituzten aipatutako alderdiek osoko zuzenketa bat zein 116 milioi euro zenbatekoa duten 53 erreklamazio partzial aurkeztu dituzte.

EAJk eta IUk aurkeztutako zenbakiak azken urteetan egindakoaren jarraipen hutsa direla azpimarratu dute ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek. Orain arteko hiri eredu bera jarraitzen dela adierazi dute, **“Bilbo kontsumo objektu eta kontsumorako gune bezala”**, hain zuzen.

Ekonomia, ingurugiro eta zaintza krisian murgildurik egon arren, **EAJk eta IUk eraikuntza eta turismoaren alde soilik egiten duen eredu desarrollista lehenesten dutela** salatu dute. San Mames Barrian, Alondegian, Deustuibarran eta ekitaldi handietan neurri gabeko gastua egingo dutela azpimarratu dute.

EAJk eta IUk bultzatzen duten turista eta kongresistentzako hiri ereduaren aurrean, ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek **“Bilbon bizi diren pertsonentzako hiria eraikitzeke apustu argia”** egin dute.

Hirurek aurrekontuak **inolako parte-hartzerik gabe egin direla** azpimarratu nahi izan dute. **“Auzoak ahazten dituen aurrekontu antisozialak dira parte-hartze ezaren ondorioaren isla”**.

Era berean, salatu dute aurrekontuek ez dituztela lehenesten eskusioaren aurkako borroka ezta hiritargoan positiboki eragin dezaketen inbertsioak.

Mobilizazioa

Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek mobilizazio bat deitu dute ostiralerako **aurrekontu partehartzaileak eta sozialagoak aldarrikatzeko. Mobilizazioa arratsaldeko 7:30etan hasiko da Arriagan eta “Diru publikoa guztion onurarako” lelopean burutuko da.**



Izquierda abertzale, EA y Alternatiba solicitan la retirada de los presupuestos municipales para 2011.

Además de una enmienda a la totalidad han registrado 53 reclamaciones parciales por un montante de 116 millones de euros

El viernes 17 se movilizarán por unos presupuestos participativos, más sociales y más justos

Los grupos municipales de la izquierda abertzale, EA y Alternatiba han exigido la retirada del Presupuesto Municipal para el ejercicio 2011 y su **devolución a la Junta de Gobierno para su reelaboración**.

Ayer finalizaba el periodo de presentación de reclamaciones a las cuentas municipales y las citadas formaciones políticas, que han analizado los presupuestos municipales de manera conjunta, **presentaban una enmienda a la totalidad y 53 correcciones parciales por valor de 116 millones de euros**.

Izquierda abertzale, EA y Alternatiba han calificado los presupuestos presentados por PNV e IU como **“continuidad con el modelo de ciudad que se ha venido promoviendo en los últimos años: Bilbo como objeto de consumo y lugar para el consumo”**.

Han señalado que a pesar de el actual escenario de crisis económica, medioambiental y de cuidados, PNV e IU siguen apostando por **“un modelo desarrollista que apuesta por la construcción y el turismo a través del gasto desproporcionado en macro proyectos: San Mames Barria, la Alhóniga, Deustuibarra, grandes eventos y que no tienen en cuenta las necesidades de los barrios, donde vive la gran mayoría de la población”**.

En este sentido, frente al Bilbo para turistas y congresistas que impulsan las cuentas presentadas por PNV e IU, izquierda abertzale, EA y Alternatiba han apostado por la **“construcción de la ciudad para las personas que viven en ella”**.

Las tres formaciones han hecho especial hincapié en la **ausencia absoluta de participación ciudadana** a la hora de elaborar los Presupuestos, cuestión que se refleja en unas cuentas antisociales que **“olvidan”** a los barrios.

Han destacado, así mismo, que los presupuestos no priorizan la inversión necesaria en la lucha contra la exclusión, ni prioriza de ninguna manera todas aquellas inversiones que revertirían de manera positiva en la ciudadanía.

Movilización

Las tres formaciones saldrán a la calle el viernes 17 en demanda de **unos presupuestos participativos, más justos y sociales. La movilización comenzará a las 7:30 de la tarde en el Arriaga y se desarrollará bajo el lema: “Diru publikoa guztion onurarako”**.

Alternatiba



Bilbo, 2010ko abenduaren 17an

